

ALTZO / Ipuin kontaketa Altzoko liburutegian gaur arratsaldean

ALTZO. DV. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, ipuin kontaketa saioa izango da gaur arratsaldean Altzon. Idoia Sanchez arituko da ipuin kontaketan. Saioa Altzoko li-burutegian izango da arratsaldeko 5etan. Idoia Sanchez dagoeneko Tolosaldeako hainbat herritan aritu da ipuin kontaketan, besteak beste, Leaburun, Gaztelun edo Iruran, eta azaroan zehar, gaurkoaz gain, beste zenbait saio ere eskainiko ditu: hilaren 17an Berastegin eta Elduainen arituko da, eta azaroaren 23an Amezketa eta Baliarrainen. Idoia Sanchezek Galtzaundi aldizkariari eskainitako elkarrizketa batean esaten duen bezala, bere moztararekin eta bere laguntzaile Loretxurekin ibiltzen da ipuin kontaketa batetik bestera. Ez du eszenatokirik jartzen, bere ustez, garrantzitsuena umeen eta ipuinaren artean sortzen den komunikazioa baita. Bestalde, zerbaitetarako balio duten ipuinak kontatzen saiatzen dela adierazten du elkarrizketa horretan, hau da, mezuren bat duten ipuinak edo baloreren bat lantzen lagundu dezaketenak: solidaritatea, lagunak izatea,...